Las vías de adquisición son la compra y las donaciones, mayoritariamente institucionales (Sede Central de la UNED, Gobierno Vasco, Diputación y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Ayuntamientos) y personales.

"Alma" UNEDen liburutegi-sarea kudeatzeko erabiltzen den liburutegi-zerbitzuen plataforma ezarri zenetik, ikasketa ofizialetan matrikulatutako ikasle guztiei automatikoki alta ematen die sistemak liburutegiaren erabiltzaile gisa. Urte horretatik aurrera, UNED identifikatzailea eskatzen duten Senior programako parte-hartzaileei ere automatikoki emango zaie alta sisteman. Ikasle ohiek Alumni UNEDen webgunearen bidez kudeatzen dute alta.

Desde la implantación de "Alma", Plataforma de Servicios Bibliotecarios con la que se gestiona la red de bibliotecas de la UNED, todos los alumnos matriculados en estudios oficiales son automáticamente dados de alta por el sistema como usuarios de la biblioteca. A partir de este año los participantes del programa Sénior que soliciten su identificador UNED también son dados de alta de forma automática en el sistema. Los antiguos alumnos gestionan el alta a través de la web de Alumni UNED.

## 2. Erakunde onuraduna

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”-k betetzen ditu dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan Foru Administrazioak dirulaguntzaren onuradun izateko ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.

Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikuluaren arabera, ezarritako betebehar guztiak bete beharko ditu.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekurik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

## 2. Entidad beneficiaria

Centro Asociado de la UNED de Bizkaia cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.

Por otro lado, la entidad está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

La entidad beneficiaria de la subvención no está incursa en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Laguntza emateko eta ordaintzeko, erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatu beharko du. Egoera horiek Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak egiaztatuko ditu, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

La concesión y el pago de la ayuda queda condicionada a la acreditación por parte de la entidad solicitante del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social. Estas situaciones serán verificadas por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, de acuerdo con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

## 3. Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia

Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra artekoa izango da, atzeraeraginez.

Diru-laguntza Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean aplikatu izanaren justifikazioa Bulego Birtualean aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2025eko martxoaren 31an amaituko da.

Hori guztia hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe.

## 3. Plazo de vigencia

Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo.

El plazo de la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija, con carácter retroactivo, desde el 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2024.

La presentación de la justificación de la aplicación de la subvención en el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad deberá realizarse en la Oficina Virtual concluyendo el plazo para su presentación el 31 de marzo de 2025.

Todo ello sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica en relación con las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia de este convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

UNED BIZKAIA

4. Aldeek beren gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak

Dirulaguntzaren zenbatekoa berrehun mila eurokoa da (200.000,00 €), 2024ko aurrekontuko 0904/G/241116/45100 aurrekontu-aplikazioaren kontura (proiektua: 2023/0114 "Bizkaiko UNED-arekin Kidetutako Zentroa").

Honelaxe ordainduko da diru-laguntza:

- 200.000,00 euro, hitzarmen hau sinatzen denean.

Ez da eskatuko erakunde onuradunak bermea ematea, ez baita ikusten bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Diru-laguntza emateko erabiliko den aurrekontu-kreditua 4. kapituluko (“Transferentzia arruntak”) eta 241116 programako kreditua da. Hortaz, funtsak ezingo dira erabili kreditu horri egotzi ahal zaizkion gastuez bestelako izaera eta helburua duten gastuetarako.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira dudarik gabe lehenengo klausulan diruz lagundu diren proiektuak behar bezala garatzeko beharrezkoak direnak.

Diru-laguntza honako gastu hauetarako erabili daiteke: justifikazio-aldia amaitu baino lehen gauzatu eta ordaindu diren gastuak, baldin eta indarreko arauekin bat

4. Obligaciones y compromisos económicos asumidos por las partes

La cuantía de la subvención asciende a doscientos mil euros (200.000,00 €) con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2023/0114 “Centro Asociado a la UNED de Bizkaia” del presupuesto 2024.

El abono de la subvención se realizará de la manera siguiente:

- 200.000,00 euros a la firma del presente convenio.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la entidad beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas.

El crédito presupuestario que ampara la concesión es un crédito del capítulo 4 “Transferencias corrientes” del programa 241116 por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de forma indubitada resulten necesarios para el correcto desarrollo de los proyectos subvencionados en la clausula primera.

Se consideran gastos subvencionables, a efectos de esta subvención, los gastos realizados y efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del período

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

badatoz eta diruz lagundu diren proiektuak garatzeko xedearekin gauzatu badira. Zortzigarren klausula betez proiektu honetan egindako auditoretza-gastuak sartzen dira.

de justificación que se ajusten a la normativa vigente, y hayan sido realizados con el fin de desarrollar los proyectos subvencionados, incluidos los gastos de auditoría realizados en este proyecto en cumplimiento de la clausula ocho.

Gastu hauek ezin dute diru-laguntzarik jaso:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- Prozedura judizialen gastuak.
- Zergak.
- Diru-laguntza jaso behar duen jarduerari zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak eta/edo xedatutako epean egiten ez direnak.
- Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak.
- Inbertsioak.

No tienen la consideración de gastos subvencionables:

- Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- Los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Los gastos de procedimientos judiciales.
- Los tributos.
- Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido.
- Los gastos de adquisición de licencias informáticas.
- Las inversiones.

## 5. Erakunde onuradunaren beste betebehar batzuk

Erakunde onuradunak zintzo bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun

## 5. Otras obligaciones de la entidad beneficiaria

La entidad beneficiaria debe cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de mujeres y Hombres, en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak.

para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

1. Agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituena; berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.

1. Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

2. Halaber, dirulaguntza honen xedeko jarduera dela-eta egin daitekeen datu-aurkezpenean sexuen araberako bereizketa egingo da.

2. Igualmente, se realizará una desagregación por razón de sexo en la presentación de datos que se puedira efectuar con motivo de la actividad objeto de esta subvención.

3. Erakunde onuradunak, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluarekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebehar horietatik salbuetsita egotea:

3. La entidad beneficiaria, de conformidad con el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones, deberá presentar informe justificativo de las siguientes circunstancias:

a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza

a) Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.

duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

b) Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

c) Pantillan 50 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

c) Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

d) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-

d) Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

sexual y acoso por razón de sexo.

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”-k euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

Centro Asociado de la UNED de Bizkaia deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”-k bere jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituen liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko da.

En todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por “Centro Asociado de la UNED de Bizkaia” para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, erakunde onuradunak II. tituluan publikotasun aktiboari dagokionez adierazitako betebeharrak bete behar ditu, betiere 2. artikuluan zehazten diren kasuetako batean badago: “Erakunde pribatuak, aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira”.

De conformidad con lo regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la entidad beneficiaria estará obligada, en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2: “Entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros”.

## 6. Azpikontratatzeko baldintzak

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”-k behar beste jarduera azpikontratatu ahalko ditu diruz lagundutako jarduera gauzatzeko, 5/2005 Foru Arauaren 27. eta 29.

## 6. Condiciones de subcontratación

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”. podrá subcontratar cuantas actividades sean necesarias para la consecución de la actividad subvencionada de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

artikuluei jarraikiz.

5/2005.

5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, "Centro Asociado de la UNED de Bizkaia"-k, gutxienez, hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu diruz lagundu behar den gastua 40.000 eurotik gorakoa bada, lanak egiteko kostuaren kasuan, edo 15.000 eurotik gorakoa bada ekipamenduko ondasunen horniduraren edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek emandako zerbitzuen kasuan.

En aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, "Centro Asociado de la UNED de Bizkaia" deberá, como mínimo, solicitar tres ofertas de diferentes proveedores cuando el gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 15.000 euros en el caso de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica.

Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean aukeraturikoa; hartara, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren-beregi justifikatu behar da memorian, proposamenik merkeena egin duena hautatu ezean.

La elección entre las ofertas presentadas deberá aportarse en la justificación, y se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

## 7. Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean aplikatu beharreko ondorioak

## 7. Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritakoak dira diru-laguntza itzultzeko zio diren ez betetzeak. Halakoetan, jasotako eta frogatu gabeko diru-kopuruak itzuli beharko ditu onuradunak, berandutze-interesak barne.

Los incumplimientos que constituyen una causa de reintegro de la subvención son los recogidos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. En dichos casos, la entidad beneficiaria deberá reintegrar las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora correspondiente.

Era berean, hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak ez betetzeak, baita emandako ekarpenak beste xede

Asimismo, el incumplimiento de las obligaciones derivadas del presente convenio, así como la utilización para otros

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

batzuetarako erabiltzeak ere, jasotako kopuruak, baita bidezko korrituak ere, itzultzeko betebeharra ekarriko lukete; horrelakoetan egin beharreko legezko egintzak egin eta ezarri beharreko zehapenak ezarriko dira. Zenbateko horiek, legez ondorioetarako, sarrera publikotzat joko dira.

fines de las dotaciones concedidas, implicará la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, con los intereses procedentes, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak eskatuko dira, eta, baldin eta onuradunari administrazioan edo zigor arloan sexu diskriminazioarekin jokatzeagatik zehapena ezartzen bazaio, sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando la persona beneficiaria sea sancionada administrativa o penalmente bien por incurrir en discriminación por razón de sexo o bien por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Behar baino gehiagoko finantzazioa denean beste laguntza batzuk ere ematen direla-eta (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarrita), bidezkoa izango da behar baino gehiago ordaindutakoa itzultzea, eta berandutze-interesa aplikatuko da.

En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

Baldintzen zati bat betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak, betiere erakunde onuradunak konpromisoak argi eta garbi betetzeko jarduketa egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da, guztizko ekintzatik buruturikoaren proportzioa aplikatuz.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la entidad beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

de la total.

## 8. Hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak

## 8. Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes

Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu Zerbitzua egiaztatze- jarduketen mende jarriko da, eta, hala badagokio, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza-kontrolaren eta auditorioren jardunen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ikuskapen- prozeduren mende.

El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte del Servicio de Empleo de la Diputación Foral de Bizkaia, y en su caso, a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”-k nahitaez justifikatu beharko du bete egiten dituela dirulaguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin duela eta haren helburua bete duela ere.

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia” está obligada a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de esta subvención.

Erakunde onuradunak baimena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari, hala badagokio, elkarreragingarritasuna erabil dezan hitzarmenaren xedea gauzatzen dela egiaztatzeko, diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten pertsonen lan-egoera barne.

La entidad beneficiaria autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia a utilizar en su caso, la interoperabilidad para la comprobación, de la ejecución del objeto del convenio, que incluye la situación laboral de las personas participantes en la actividad subvencionada.

Diru-laguntza Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasunaren Sustatzeko Sailean aplikatu izanaren justifikazioa Bulego

La presentación de la justificación de la aplicación de la subvención en el Departamento de Empleo, Cohesión

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Birtualean aurkeztu beharko da, honela:

1. 2024ko irailaren 15a baino lehen, diru-laguntza eman zitzaionean ezarritako baldintzak bete dituela egiaztatzen duen jarduketa-memoria aurkeztu beharko du, 2024ko lehen seihilekoan gauzatutako jardueren eta lortutako emaitzen deskribapen xehakatuarekin.

2. "Centro Asociado de la UNED de Bizkaia"-k 2025eko martxoan, justifikazio-kontua aurkeztu beharko du eta kontu-auditoreak egindako txostena aurkeztu beharko du, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 59. artikuluan araututa dagoena. Bizkaiko Foru Adundiaren erregistro elektronikoan aurkeztuko dira agiri hauexek:

- Egindako jarduerak eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jardueren deskribapen xehakatuarekin, bai eta lortutako emaitzen deskribapen xehatuarekin ere.

- Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa; osagai hauek eduki behar ditu:

    - Diruz lagundutako jarduerari

Social e Igualdad deberá realizarse en la Oficina Virtual del siguiente modo:

1. Con anterioridad al 15 de septiembre de 2024 deberá presentar la memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con descripción detallada de cada una de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos durante el primer semestre de 2024.

2. "Centro Asociado de la UNED de Bizkaia" deberá presentar en el mes de marzo de 2025 la cuenta justificativa, con aportación de informe de persona auditora, regulada en el artículo 59 del Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que se presentará a través de registro electrónico de la Diputación Foral de Bizkaia, por lo que se requiere la presentación de la siguiente documentación:

- Memoria de actuación justificativa y del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con descripción detallada de cada una de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

- Memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas que contendrá:

    - Un estado de ingresos y gastos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

egotzitako diru-sarreren eta gastuen egoera.

imputados al proyecto .

- Gastuen egoera-orrian sartzen diren partidetako bakoitzean gastuen zerrenda sailkatua egingo da, eta bertan identifikatuta agertuko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, igorpen data eta ordainketa data.

- Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una relación clasificada de los gastos con identificación de la parte acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago.

- Kostu orokorren, zeharkakoen edo partekatutakoen banaketa-irizpideen adierazpena, aurreko atalean adierazitako gastuen zerrendan txertatuta.

- Indicación de los criterios de reparto de los costes generales, indirectos o compartidos, incorporados a la relación de gastos mencionada en el apartado anterior.

- Sarreren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-laguntzen, laguntzen, sarreren edo baliabideen zerrenda xehatua, baita norberaren finantzaketa ere. Horietan zenbatekoa eta jatorria aipatu behar dira.

- Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, relación detallada de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

- Hala badagokio, diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikuluaren arabera pertsona onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

- Los tres presupuestos que en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral de Subvenciones, en su caso, deba haber solicitado.

- Aplikatu ez den gerakinik egonez gero, haien itzulketaren ordainketa-gutuna.

- En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Kontu-auditore baten txostena; kontu-auditore horrek jarduneko auditore gisa egon behar du inskribatuta Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren mendeko Auditoreen Erregistro Ofizialean.

La persona auditora de cuentas deberá estar inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

Txostena egongo da Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan xedatutakoaren mendean. Foru agindu horren bidez, foru sektore publikoko diru-laguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onetsi ziren; lan horiek 59. artikuluan daude aurrez ikusita martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak.

El informe estará sometido a lo dispuesto en la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el artículo 59 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

Halaber, erakunde onuradunak 2024ko ekitaldiko urteko kontu ikuskatuak aurkeztu beharko ditu.

Asimismo, la entidad beneficiaria deberá presentar las cuentas anuales auditadas del ejercicio 2024.

## 9. Hitzarmena aldatzeko araubidea

Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

## 9. Régimen de modificación del convenio

El órgano concedente de la subvención podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

## 10. Hitzarmen azkentzea

Hitzarmen hau azkenduko da edo bere

## 10. Extinción del convenio

El presente convenio se extinguirá por el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

xede diren jarduketak betetzean.

Erakunde onuradunak hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak betetzen ez baditu, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena suntsiarazteko ahalmena izango du.

Hitzarmena iraungitzeak ez dakar berarekin erakunde onuradunari hitzarmenetik eratorritako betebeharrak iraungitzea.

cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.

El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de las obligaciones derivadas de este convenio facultará a la Diputación Foral de Bizkaia para la resolución del mismo.

La extinción del convenio no implica la de las obligaciones de la entidad beneficiaria derivadas del mismo.

## 11. Emandako diru-laguntza hedatzea

"Centro Asociado de la UNED de Bizkaia"-k behar bezala agertarazi behar du Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren laguntza jaso duela horretaz baliatzen den ekintza guztietan, eta horretarako Sailaren jarraibideak aplikatuko ditu.

Erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko du lehentasunezko tokian eta laguntza honen xede diren material, argitalpen edo jarduera guztietan.

## 11. Difusión de la subvención concedida

"Centro Asociado de la UNED de Bizkaia" deberá hacer constar, convenientemente, la colaboración del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad en las acciones subvencionadas y siguiendo las instrucciones que el mismo le transmita.

La entidad beneficiaria deberá situar en lugar preferente y en todos los materiales, publicaciones o actuaciones objeto de la presente ayuda, el logotipo de Diputación Foral de Bizkaia.

## 12. Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalen tratamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera egingo da, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu

## 12. Protección de datos de carácter personal

El tratamiento de los datos personales se hará con sujeción a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

## 13. Erakunde onuradunak laguntzeko betebeharra

## 13. Obligación de colaborar de la entidad beneficiaria

Pertsona onuradunak eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten gainerakoek laguntza eman behar dute, eta foru administrazioko organoek nahiz arautegi erkidearen arabera finantza -kontroleko eginkizunak eratxikita dituzten organoek eskatzen dizkieten agiri guztiak eman beharko dituzte; 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Las personas beneficiarias y las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación están obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, de conformidad con lo dispuesto en artículo 41 de la Norma Foral 5/2005.

## 14. Izaera eta Araubide juridikoa

## 14. Naturaleza y Régimen Jurídico

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta bertan xedaturikoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitekeen eduki zuzenbideko arauak bete beharko ditu.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho sustantivo que directamente o por analogía puedan resultar de aplicación.

Zehazkiago, hauexek dira aplikagarriak: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua (5/2005 Foru Arau garatzekoa) onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua.

En particular serán de aplicación la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de Subvenciones.

Aurreko arauetan aurreikusi ez den guztirako, hauexek aplikatu beharko dira: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore

Para todo lo no previsto en las anteriores normas, será de aplicación la Ley 40/2015, de régimen jurídico del Sector Público, el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Publikoaren Araubide Juridikoena, 169/2014 Aurrekontuei buruzko Araudi orokorra, eta zuzenenan edo analogiaz aplikatu beharreko administrazio edo substantibo zuzenbideko beste edozein arau.

texto refundido del Reglamento Foral Presupuestario 169/2014, así como cualquier otra norma de derecho administrativo o sustantivo que directa o por analogía pueda resultar de aplicación.

Hitzarmen honen interpretazioa, ondoreak, ebazpena eta behar bezalako betetzea direla eta sor daitezkeen eztabaida guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak ebatziko ditu administrazio bidean hark emandako ebazpenak berehala betearaztekoak izango direlarik.

Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento del presente convenio, cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico- administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo conforme lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

## 15. Arau-hausteak eta zehapenak

## 15. Infracciones y sanciones

Diru-laguntzei buruzko Foru Arauko IV. tituluan xedaturikoa aplikatuko da.

Se aplicará lo dispuesto en el título IV de la Norma Foral de Subvenciones.

## 16. Diru-laguntza borondatez itzultzea

## 16. Devolución de la subvención por propia iniciativa

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia”-k bere kabuz erabaki dezake dirulaguntza itzultzea. Itzulketa ordainketa-gutunen bidez egingo da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofiziala erabilita eta honako hauek adierazita: itzuli beharreko

“Centro Asociado de la UNED de Bizkaia” podrá efectuar la devolución de la subvención por propia iniciativa. La devolución se deberá realizar mediante las correspondientes cartas de pago según modelo oficial de la Diputación Foral de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

zenbatekoa (nagusia edo berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia.

Bi ordainketa-gutun egingo dira Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulegoetan, itzuli beharreko dirulaguntzaren zenbateko nagusiarengatik bata, eta sortutako berandutze-interesengatik bestea. Ordainketa-gutunak egin ondoren, finantza-erakunde batean ordainduko dira eta kopia bat bidali beharko da Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Enplegu Zerbitzura.

**17. Helburu bera duten beste diru-laguntzak, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna eta bateraezintasuna.**

Emandako diru-laguntza bateragarria da xede bererako Estatuko zein Europar Batasuneko administrazio eta erakunde publiko zein pribatuek edo nazioarteko erakundeek emandako beste edozein diru-laguntzarekin.

Erakunde onuradunak beste organismo batzuek xede bererako eman edo ematen dizkioten laguntzen berri eman behar dio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, honek kontrolatu behar baitu emandako diru-laguntza, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batera, ez dela egindako jardueren kostua baino gehiago.

Bizkaia, consignando: el importe a devolver (principal o intereses de demora), código-modelo, y motivo del ingreso.

Se confeccionarán dos cartas de pago en las oficinas del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, una por el principal de la subvención a devolver y otra por los intereses de demora generados. Una vez confeccionadas dichas cartas de pago, serán abonadas en una entidad financiera, debiendo remitir copia de las mismas al Servicio de Empleo del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

**17. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.**

La subvención otorgada es compatible con cualquier otra para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales de la Unión Europea o de organismos internacionales.

La entidad beneficiaria deberá informar al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de las ayudas que por los mismos hechos hayan obtenido o puedan obtener de otros organismos con el fin de comprobar que la subvención concedida, tenida en cuenta aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, no supere en ningún caso el coste de la actividad a desarrollar.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Hala ere, dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluak ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

No obstante, conforme al artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

Y, para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3LB6-2AN8-GH2E-7682
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: